# IMAGINARY

## begirada matematiko bat

www.rsme-imaginary.es



Citrus: $x^2+z^2 = y^3(1-y)^3$

"Real Sociedad Matematica Española"k bere mendeurrena dela eta antolatutako erakusketa interaktiboa, artearen eta matematikaren arteko zenbait erlazio azaltzen dituelarik. Oberwolfach-eko Ikerketa Matematikoen Institutuak (Alemania) sortutako IMAGINARY erakusketaren moldaketa da, eta matematikarien eta artisten arteko parte-hartzearen emaitza da. Bere leitmotiva irudia da, non irudikatutako errealitatearen eta objektu matematiko abstraktuen adierazpen zehatzen arteko elkarketa ematen den. Ongi Etorri!!!

IMAGINARY-k irudikatze-matematikoko zenbait programa interaktibo eskaintzen ditu. Programa hauek, forma ederren unibertso aberatsaren banakako esplorazioa edo esplorazio gidatua eskaintzen dute; eta hezkuntza zentroetan edo norberak erabil ditzake. www.rsme-imaginary.es helbidean dohainik jaitsi daitezke.



## Surfer

Programa honen bidez gainazal aljebraiko errealak sortu eta irudikatzea posible da. Kaiserslautern-eko Unibertsitate Teknikoak eta Oberwolfach-eko Ikerketa Matematikoen Institutuak IMAGINARY erakusketarako garaturiko programa da.



## 3D_XplorMath

Objektu matematikoak, bereziki kurba eta gainazalak, ikusteko eta aztertzeko aukera zabala du. Erabiltzailea erakartzeko objektu, animazio eta aukera ugari ditu, 3D betaurrekoak janzteko aukera eta guzti!

3D_XplorMath partzuergoak garatua.



## jReality

Kontsola-joko bat balitz bezala kontrolaturiko errealitate birtualeko ingurunea da. Erabiltzailea aukeraturiko objektuaren inguruan ibil daiteke, barnean sar daiteke, objektu erreal bat bezala hauteman dezake... Berlin-eko Unibertsitate Teknikoak garatua izan zen.




## Imaginary-Cinderella eta Morenaments

Cinderella erabiliz eraikuntza geometrikoak eta simulazio fisiko birtualak sor daitezke, edo jada sortutakoekin esperimenta daiteke. Morenaments-ek planoa "adreilatzeko" existitzen diren 17 molden arabera margotzeko eta jolasteko aukera ematen du.

REALSOCIEDAD MATEMÁTICAESPAÑOLA CENTENARIO1911//2011